

Pentsioak Espainian eta biziarteko errenten funtzioa.

Biziarteko errentak Gizarte Segurantzaren pentsioen arazoaren konponbidearen zati bat dira eta erretiratu batek aurrezkiari uko egin gabe bizi guztian diru-sarrerak gehitzeko modurik onena dira.

Bilbon, 2018ko otsailaren 27an.

Analistas Financieros Internacionales-ek (Afi) *Erretirorako konponbideak. Biziarteko errenten izaera, abantailak, defentsa eta sustapena* txostena aurkeztu du LABORAL KUTXAren egoitzan. Aseguruaren Enpresa Elkarteak enkargatutako azterketa horretan, hain zuzen, pentsioen egoera aztertzen da herrialdean eta biziarteko errentek erretiro-pentsioen sistema publikoak aurre egin beharreko erronka demografiko eta sozioekonomikoen aurrean izan dezaketen funtzioa azaltzen da.

Prentsaurrekoa Pablo Mongelos jaunak, UNESPAko Euskadiko eta Nafarroako Lurralde Batasuneko lehendakariak, inauguratu du. Iratxe Galdeano andreak, Afi-ko kideak, txostenaren edukia azaldu du. Hauek dira txostenean nabarmendu beharreko puntuak:

- Afi-ren azterketak erakusten du 2011 eta 2013ko erreformek batez beste hilabetean 350 euroko jaitsiera eragingo dutela Espainia osoan gaur egun erretiroa hartzen duen pertsona baten erosahalmenean erretiratu gisa izango duen bizitza osoan zehar. Euskadiren kasuan erosahalmenearen jaitsiera hori 430 euro/hilabete izango litzateke, batez besteko pentsioa handixeagoak direlako Autonomia erkidego honetan Espainia osoan baino.
- Biziarteko errentak tresna oso egokia dira erretiro-pentsio publikoa osatzeko, pentsioen sistema publikoaren gaineko presioak arintzen dituztelako eta jasangarritasunari laguntzen diotelako.
- Afi-ren azterketan estimatzen denez, 63.000 euro nahikoa dira Espainiako batez besteko pentsio baten 350 euroko erosahalmenearen galera hori konpentsatuko duen biziarteko errenta bat eratzeko. 63.000 euro horiek, hain zuzen, herrialde osoan erretiroa hartutako pertsonak buru dituzten etxebizitzaren batez besteko ondarearen herenaren baliokideak dira. Euskadiren kasuan zenbateko hori 78.000 eurora arte igoko litzateke autonomia erkidego honetako batez besteko pentsioak izango lukeen erosahalmenearen 430 euro/hilabeteko jaitsiera hori konpentsatzeko.

- Biziarateko errentak eraginkorrak dira erretiratuen kontsumoa doitzeko aukera ematen dutelako haien bizi guztian zehar erabilgarri duten aurrezkiaren arabera, titullarrek oinordekoei ondarea uzteko nahiari uko egin beharrik izan gabe.
- Biziarateko errentak konponbide aseguratua dira pertsona bat bere aurrezkiak baino gehiago biziitza saihesteko. Lan-bizitzan zehar gradualki egindako aurreikuspen-aurrezki batetik edo aurrez metatutako ondare batetik abiatuta eratutako "biziitza guztirako" errentak dira.
- Biziarateko errentek biziitza-maila bermatzen die errenta horiek jasotzen dituztenei, aseguratuta baitaude, zenbat denbora biziitza diren alde batera utzita. Horrela, biziitarateko errentek eragotzi egiten dute pertsona bat bere aurrezkiak baino gehiago biziitza, hori albiste txarra bailitzateke; edo metatutako aurrezki gehiegi egotea hura hiltzen denean, hori ez bailitzateke eraginkorra izango, esan nahiko bailuke pertsona horrek izan zezakeena baino biziitza-kalitate eskasagoa izan duela.
- Txosteneko datuek erakusten dute ez dela beharrezkoa gehiago aurreztea erretiroan zehar errentak osatzeko. Hobeto aurreztea da gakoa.
- Norberaren eta familiaren aurrezkitirako gako hori funtsezkoa da gaur egungo debitean: baliabideak jada erabilgarri daude familia-egiturak aldatu dituen gizarte batean eta gero eta biziitza luzeagoak guztion aurreikuspen-ahalegin handiagoo eskatzen duen gizarte batean.
- Biziarateko errenta bat eratzeko jar daitezkeen baliabideak era askotakoak izan daitezke: ohiko aurrezki finantzarioa (gordailuak, funtsak, akzioak...), etxebizitzak (nagusiak edo bigarren mailakoak), hainbat eratako eskubideak (negozio-traspasoak, lizentziak...) Biziarateko errentek aukera ematen dute ondarea hilerio pensio publikoo osatzen duen errenta bihurtzeko.
- Gainera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) araudiaren arabera, ondare-elementuen transmisioan egindako ondare-irabaziak (gainbalioak) (240.000 euroko baliora arte) salbuetsita daude, betiere biziitarateko errenta eskuratzeko erabiltzen badira osorik, ondarearen titullarrak 65 urte edo gehiago baditu eta errenta hori bere alde eskuratzten bada. Gainera, errentaren tratamendu fiskala jasotzen hasten denean onuragarria da.
- Afi-ren azterketan estimatzen denez, pensio publikoen erosahalmen-murrizketak urtean % 1,5eko batezbesteko enplegu-jaitisiera eragin lezake 2017 eta 2035 urteen artean (lanaldi osoko 330.000 enpleguren baliokidea); eta antzeko jaitisiera

barne-produktu gordinean (BPG). Biziarteko errentek ondorio makroekonomiko negatibo horiek konpentsa ditzakete, enplegua eta hazkunde ekonomikoa babesten dituen barne-eskaera sortuz.

- Biziarteko errentek malgutasun handia dute titularren beharrei erantzuteko, behar horiek oso desberdinak izan daitezkeen arren: une desberdinetan era daitezke, ordaintzeko prima titularrak erabakitzen du, kapital aseguratua osoa edo zati bat erreskata daiteke, kapital aseguratua beste pertsona batekin partekatuta erabil daiteke eta kapitala erabiltzen hasteko adina ere modula daiteke, eta erretiro-ziklo osoan zehar izango diren prestazioak ere bai.
- Biziarteko errentek nabarmen abantaila handiagoak dituzte finantza-errentek baino, bizitza-iraupenaren arriskua mutualizatzen baitute titularren mesedetan (estalitako kolektiboaren hilkortasun-arriskua errentadun guztien artean banatzen da) eta errentagarritasuna epe oso luzeko aktiboetan oinarritzen delako, errentagarritasun-prima lortuz epe luze horren arabera. Abantaila horiek estalitako kolektiboaren tamainari esker handitu egiten dira titularren mesedetan, eta ezaugarri horrek merkeago eta eraginkorrago egiten ditu zentzu guztietan.
- Biziarteko errentek Gizarte Segurantzako pentsioekin batera "bizitza guztirako" erretiro-errenta izaera dute, jasangarriak dira izaeraz oinarrian duten aktuario-technikari esker eta kaudimen-estandar oso handiekin kudeatutako aseguru-etxe batek bermatuta daude.

Informazio gehiago nahi izanez gero,

Silvia Meiattini smeiattini@afi.es; 91 520 01 12

UNESPAko Komunikazio Saila gabinete.prensa@unespa.es; 91 745 15 30